

40. FITXA BIZKAIA - 2024an Bizkaiko Lurralde Historikoko kudeaketa turistikoko enteen eta entitate publikoen jarduera turistikoa sustatzeko dirulaguntzak

Nori zuzendua: 150.000 biztanletik beherako udalak eta horien mendeko ente publikoak, tokiko beste ente publiko batzuk eta kapital gehiena publikoa duten tokiko sozietate publikoak (1. eta 4. arloak); eskualdeko eta tokiko kudeaketa turistikoko enteen eta horien mendeko beste ente publiko batzuk (1., 2., 3. eta 4. arloak) Eskualdeko turismo-kudeaketako enteen (1. arloa).

Sarbide-esteka: [Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren Bulego Birtuala](#)

Erreferentziako araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren 65/2024 FORU DEKRETUA, ekainaren 13koa, 2024an Bizkaiko Lurralde Historikoko kudeaketa turistikoko enteen eta entitate publikoen jarduera turistikoa sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen](#)

Eremuak: Turismoa

Zenbatekoa: 1.030.000 € (1. arloa: 145.000 €; 2. arloa: 140.000 €; 3. arloa: 320.000 €; 4. arloa: 255.000 €; 5. arloa: 170.000 €)

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/07/02

Laburpena

Dirulaguntza deialdi honen helburua da sektore publikoari laguntzea **Bilbao-Bizkaia helmugaren garapen turistikoa jasangarrira** bideratutako proiektuak egiten, bai eta lurraldean proiektu turistikoa duten ekitaldiak bultzatzea ere.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1. ARLOA: TURISMO-AZPIEGITURAK, TURISMO-BULEGO IRAUNKORRAK ETA TURISMO BALIABIDEAK HOBETZEA

Diruz lagundu daitezkeen egitatetzat hartuko da turismo-azpiegiturak, turismo-bulego iraunkorrak eta turismo-baliabideak hobetzeko edo egokitzeko eta turismo-eskaintza garatzeko inbertsioa, honako eremu hauetan:

- Jasangarritasuna. Sortutako hondakinak murriztea, energia-eraginkortasuna handitzea,

ingurumen-inpaktua murriztea, ekonomia zirkularreko ekimenak, besteak beste.

- b) Irisgarritasuna. Oztopo fisiko, sozial eta emozionalak ezabatuz turismo inklusiboa bultzatzeko proiektuak.
- c) Bizkaian turismo-eskaintza hobetzen lagunduko duten esperientzia turistikoak, eskaintza bisitagarriak, zerbitzuak edo turismo-produktuen garapena sortzea, balio erantsi handiagoa emanez.
- d) Digitalizazioa. Turismo-zerbitzuen berrikuntza, soluzio teknologikoen bidez. Webgunea sortu, garatu eta nabarmen hobetzen bada, entitate onuradunak banner bat ezarri beharko du bere webgunean, eta Visitbiscay-rekin lotu.
- e) Seinaleak. Tokiko espazioetan turismo-baliabideak seinalezatzeko proiektuak gauzatzea. Behar diren baimenak izan beharko dituzte, eta indarrean dagoen araudiaren arabera egikaritu.

Ez dira diruz laguntzeko moduko egitatetzat hartuko aurretik diruz lagundutako ezaugarri bereko beste proiektu batzuen jarraipen hutsa diren eta finantzaketa handiagoa lortzeko nahita zatitu diren proiektuetan jasotakoak.

2. ARLOA: PRESTAKUNTZA ETA SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Diruz laguntzeko moduko egitatetzat hartuko dira prestakuntza-ekintzak eta sektorearen lehiakortasuna hobetzeko ekintzak, turismoaren arloan ikastaroak edo bisita teknikoak antolatuz, berrikuntzan oinarritutako ezagutza areagotzea bilatzen badute.

3. ARLOA: HELMUGA, PRODUKTUAK EDO JARDUERA TURISTIKOAK SUSTATZEA

Diruz laguntzeko moduko egitatetzat hartuko dira bisitariak erakartzeko jarduerak edo turismo-helmuga, turismo-produktuak edo turismo-jarduerak sustatzeko ekintzak:

1. Sustapen-kanpainak edo -jarduerak, publizitatea txertatzea edo antzekoak.
2. Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpoko azoka turistiko eta profesional espezializatuetera erakustoki gisa joatea.
3. Bisitariak erakartzeko jarduerak

4. ARLOA: TURISMOA ERAKARTZEKO EKITALDIAK

Honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoan turismoa erakartzeko ekitaldiak diruz laguntzeko moduko egitatetzat hartuko dira:

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoko eskualdeetan eragin sozial eta ekonomiko positiboa izatea.
- b) Bizkaiaren posizionamendu turistikoa sendotzen laguntzea.
- c) Publiko orokorrari irekita izatea.
- d) Bizkaiko Lurralde Historikoaz haraindi ondorioak izatea

Beharrezkoa izango da ekitaldiak informazioa izatea entitate sustatzailearen webgunean, sare sozialetan edo entitateak duen informazio publikoko beste edozein bitarteko, plataforma edo euskarri digitaletan.

5. ARLOA: TURISMO-KUDEAKETAKO EGITURAK SENDOTZEA

Diruz lagundu daitekeen egitatetzat hartuko da helmugen turismo-kudeaketarako pertsona espezializatu bat edukitzea, bai eta eskualdeko turismo-kudeaketako enteen langile finko edo egonkorren gastua ere.

Gastuetarako aldi hautagarria

1. arloa: Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak **2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra** arteko epe luzaezinean hasi eta amaitu beharko dira. Justifikatutako arrazoi batengatik proiektuak ezin badira amaitu 2024ko abenduaren 31rako, eta arrazoiak emanez jakinarazten bada eta egoera hori egiaztatzen bada, 2025eko martxoaren 31ra arte luzatu ahal izango dira, betiere jarduketak 2024an hasi badira. Gauza bera egingo da, jarduera Sektore Publikoko Kontratuen Legearen mende dagoen kontratu baten mende badago eta lizitazio-prozedura 2024an hasi bada.

2., 3., eta 5. arloak: Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak **2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra** arteko epe luzaezinean hasi eta amaitu beharko dira.

4. arloa: Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak **2024ko maiatzaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra** arteko epe luzaezinean hasi eta amaitu beharko dira.

Laguntzen zenbatekoa

1. arloa: Diruz lagun daitezkeen egitateek diruz lagun daitezkeen gastuaren % 60ko laguntza izango dute gehienez, eta ez da inoiz **25.000 eurotik** gorakoa izango entitate onuradun bakoitzeko

2. arloa: Diruz lagun daitezkeen egitateek diruz lagun daitezkeen gastuaren % 60ko laguntza izango dute gehienez, eta ez da inoiz **5.000 eurotik** gorakoa izango entitate onuradun bakoitzeko.

3. arloa: Diruz lagun daitezkeen egitateek diruz lagun daitezkeen gastuaren % 60ko laguntza izango dute gehienez, eta ez da inoiz **35.000 eurotik** gorakoa izango entitate onuradun bakoitzeko

4. arloa: Diruz lagun daitezkeen egitateek diruz lagun daitezkeen gastuaren % 60ko laguntza izango dute gehienez, eta ez da inoiz **20.000 eurotik** gorakoa izango entitate onuradun bakoitzeko

5. arloa: Diruz lagundu daitezkeen egitateek diruz lagundu daitezkeen gastuaren %60ko laguntza izango dute gehienez, eta ez da inoiz **30.000 eurotik** gorakoa izango zuzeneko kontrataziorako, eta **20.000 eurotik** gorakoa turismoko profesional baten edo turismo-teknikari bat duen enpresa baten laguntza teknikoa kontratatzeko, erakunde onuradun bakoitzeko.